

Berrigara

ANGIOZARA



**Eskola Txikien
Jaia domekan!**



Etxeko altzariak

Egongelak

Logelak

Sukaldeak

Osagarriak



**Carpinteria
GARITANO
Aroztegia**

Ondarre, 9. ANTZUOLA.

Tel.: 943 76 62 45. Faxa: 943 78 71 16.

**INAUGURAZIOA
ekainaren 12an**

19:00etan

ELGOIBAR B.H. Institutua

2001/2002

Arregitorre, 2

Tel. 943 74 80 19

Faxa. 943 74 82 30

E-posta: bulegoa@elgoibar.hezitek.net

web: www.elgoibar.hezitek.net



ERDI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK (A eta D ereduak)

Merkataritza

Ibilgailuen Elektromekanika

Karrozeria

Erizaintza Laguntza Osagarriak

GOI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK (A eta D ereduak)

Administrazioa eta Finantzak

Automozioa

Ingurugiro Osasuna

AURREMATRIKULA EPEA: ekainaren 1etik 11ra arte

600 ikasle inguru beraien etorkizuna jorratzen · **Azpiegitura teknologiko aurreratuena.** Etorkizunerako prestakuntza ziurtatuz · **ISO 9002 kalitate ziurtagiria.** Prozedura garden eta kontrolatuak · **80 lizentziatu, ingeniari edo diplomatu.** Unibertsitate eta goi mailako zikloetarako **prestakuntza zuzena** · **Lanpostua berehala lortzeko aukera.** **Lanbide Heziketako Sare Integraleko partaidea.**





Irtenbidea

Andres Osa 'Sakona'

Hauteskundeak joan ziren. Bazirudien aurreko egunetan munduaren amaiera zetorrela edo antzerako zerbait. Baina eguzkia betiko tokitik atera zen. Batzuentzat egunsenti distiratsua, garbia, eta beste batzuentzat, ordea, iluna, laino beltzez estalia uholdearen iragarpena zirudien.

Baina egunak etorri egunak joan, urak bere onera etorri dira eta distirak moteltzen eta laino beltzak arintzen joan dira. Hauteskunde ondoren, ongi neurtzen badugu, bloke bien arteko aldeak ez dira itsafleroak botatzeko adinekoak. Pertsonen gorputzeko tentsio arteriala behekoa 10 bada eta goikoa 11, argi gorria pizten da. Emaizten araber, politika arloan ere egoera antzerakoa gelditu da.

Egoerak benetan gordina izaten jarraitzen du. PPko pertsona bati entzun genion hauteskunde biharamonean: «Lizarrako akordioaren eta su-etenaren ondotik lasai, pozik eta askatasunean bizi izan ginen guztiok. Antzerako zer-

baiten beharra dago. Gure alderdikideek eta hautesleek, besterik agertzen badugu ere, horixe nahi genuke». Jaunandreok, hartu apuntea.

Nahigabea, samina, segurtasun eza, odola eta heriotza tartean daudenean, «indarkeria dagoen bitartean ez dago elkarlanik» esatea, benetako arazoari uko egitea da, politikoki disparte eta etikoki onartezina.

«Demagun ez dagoela ETarik. Zer egin beharko genuke gure arazo historikoari irtenbidea aurkitzeko? Lizarrako paktoa edo antzerako zerbaiten bidean elkarlanean hasi»

Une batez demagun ETA ez dela existitzen. Zer egin beharko genuke gure arazo historikoari irtenbidea aurkitzeko? Lizarrako paktoa edo antzerako zerbaiten bidean elkarlanean hasi.

Baina gainera ETA hor dago eta historiari begiratzen badiogu hor jarraituko du. Norbaitek uste badu, EHK ekin-tza armatuak kondenatuz, (gaur kondenatu, bihar denuntziatu eta ondoren...) ETA gelditu egingo dela, ilusioak errealitatearekin nahasten ditu. Oker dabil. Egoera bere horretan mantentzea litzateke.

Begira, arazoari benetako konponbidea aurkitu nahi badiogu garbi dago zer egin behar den, Lizarra edo antzerako zerbait berreskuratu, konplejoak alboan laga eta elkarlana indartuz urratsak eman, mantso, baina tinko eta urrats horiek ematen diren neurri berean ETA isilduko da eta su-etena ezarri ere bai. Beste guztia alferriko jardunak dira.<

barruan



Arantzazu Loidi

Prebentziorako teknikaria

«*Herriko gazteen artean drogen kontsumoa nahiko hedatua dago*»

6.



Juanjo Nogueiras

Naturazalea

«*Araotzen sai arren Gipuzkoako koloniarik garrantzitsuenetakoa dago: 60 putre inguru*»

11.



Pedro Luque

Periodiko saltzaillia

«*Kioskoko lana oso lotua da. Urtian hiru egunian bakarrik ixten dogu*»

13.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



BEKAK

Kultura. Zestoako Udala. Euskara eta Kultura Zerbitzua. Lizentziadunak. EGA. Zestoako ondare kulturala eta usadioak ikertzeko, Zestoako Herria 2001 beka. Epea: Ekainak 30.

JARDUERAK

Auzolandegiak. Deustuko Unibertsitatea-Donostia. Adin desberdineko gazteendako. Gipuzkoan, Arrasateko Aita Mennin eta ospitaleko psikiatrikoan, gaixoen arretan lankidetzan aritzea; Espainiako Estatuan, beste zenbait leku eta eginkizun. Epea: auzolandegi bakoitzaren arabera.

IKASTAROA

Heziketa zikloak. Erdi eta goi mailako heziketa zikloak ikasteko, izena emateko epea: ekainaren 1etik 12ra. Zinema. Gidoigileak Heztekoko Luis Garcia Berlanga Zentroa. Valentzia. Zinemazuzendaritzako tailerra. Epea: ekainak 15.

LEHIAKETAK

Gaztemaniak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Editatu gabeko diskoak edo aurretik sarituak izan ez diren diskoak egin dituzten talde edo bakarlariek. Maketen lehiaketa. Epea: ekainak 30.

LANA

Argiketaria. Azpeitiko Udala. Babxilergoa edo LH-2 titulua izatea. B gidabaimena. Epea: ekainak 14.
Gizarte lana. Lezoko Udala. Gizarte-lan edo gizarte laguntzaile titulua; euskarazko 4. hizkuntza-eskakizuna. Windows, internet, Word, Excel, eta Access erabiltzaile mailan. Lezoko Udalean Gizarte

TURISMOA

Udako oporrei begira, zuen ibilbidea zehazteko hainbat probintzia edo herrialdeetako informazio turistikoaren premia baduzue, zatozte gazte informazio gunera. Aterpetxeak, ibilbide kulturalak, mapak eta abar kontsultatu ahal izango dituzue.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiak panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euska.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztiko informazioa zabaltzeko. Mila esker.

zorionak!



Aitor Garcia
9an 6 urte.
Urte askotarako!
Asier eta gurasoak.



Jesus Ruiz de Larramendi
8an urtebetetzea.
Urte askotarako aita!
Iker eta Olatz.



Andoni Fernandez de Lezea
11n 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maddi Aldazabal
14an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Leire Moñux
9an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Leire Aguayo
8an 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ane Vicente
11n 8 urte.
Urte askotarako!
Joseba eta gurasoak.



Jon Ander Larrañaga
11n 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Andoni Lasa
11n 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

*Hurrengo alean,
ekainaren 15etik 21era
bitartekoan zorion
agurrak argitaratuko ditugu.*



Oihana Alzelai
8an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta, batez ere, Amaia.

mezak

Santa Marina

Domekak:
11:30, 13:00.

Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30.

Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak:

10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegaraieta

Domekak: 11:00.

San Lorentzo

Zapatuak:

20:00.

Angiozar

Domekak:
11:00.

Monja

Domekak: 18:00.

Zaharrak

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Lanegunak: 11:45.

Zapatuak: 17:30.

Antzuola

Domekak:

09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorentzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 8:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
ZAPATUA 9:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
DOMEKA 10:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
ASTELEHENA 11:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
MARTITZENA 12:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
EGUAZTENA 13:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
EGUENA 14:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

OGIA

DOMEKA 10. Konde

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun Etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko anonimoak 943 76 51 06
GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultur Etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirolegia 943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara. 943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notaritza 943 76 10 73

oharrak

■ 1958an jaiotako enafaria:

ekainaren 16an Txurigo jatetxean. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) Irrintzi edo Usoa tabernetan.

■ 1960an jaiotako enafaria:

ekainaren 23an Osintxuko Txurigo jatetxean, 21:30ean. Aurretik taldeko argazkia aterako da Osintxuko frontoian, 21:00etan. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) BBVA banketxean irekitako kontu korrantean ekainaren 15era arte egin daiteke.

■ Amnistiaren aldeko

batzordeak: ekainaren 1ean egindako zozketan 7.124 izan da saritutako zenbakia. Boletoaren jabeak Zumelaga jatetxean lau lagunendako enafaria irabazi du.

■ Billaresera irteera:

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Gorla Alpinok ekainaren 23an eta 24an Billaresera joateko irteera antolatu dute. Txartelak Pol-Poleko bulegoan salgai daude.

■ Abiadura Handiko

Trenaren aurkako

kontzentrazioa:

astelehenean, ekainak 11, barianteko semaforoan, 19:30ean egingo da kontzentrazioa.

hau giroa!


San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

Maiatzak 24, eguna
Maiatzak 25, egubakoitza
Maiatzak 26, zapatua
Maiatzak 27, domeka
Maiatzak 28, astelehena
Maiatzak 29, martitzena
Maiatzak 30, eguaztena
Maiatzak 31, eguna
Ekainak 1, egubakoitza
Ekainak 2, zapatua
Ekainak 3, domeka
Ekainak 4, astelehena
Ekainak 5, martitzena
Ekainak 6, eguaztena

Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
24 °C	12 °C	- l/m ²
24 °C	14 °C	- l/m ²
27 °C	12 °C	- l/m ²
35 °C	11 °C	- l/m ²
35 °C	13 °C	- l/m ²
35 °C	11 °C	- l/m ²
31 °C	14 °C	0,3 l/m ²
20 °C	15 °C	- l/m ²
23 °C	11 °C	- l/m ²
23 °C	8 °C	- l/m ²
24 °C	9 °C	- l/m ²
24 °C	8 °C	- l/m ²
23 °C	15 °C	- l/m ²
20 °C	12 °C	0,3 l/m ²

jardunen agenda



■ Jolasleku ibiltaria:

ekainak 15, egubakoitza, 5-10 urte bitarteko haurrentzat, parkean izango da arratsaldeko 5etatik 7etara.

■ Antxintxika programa:


euskara errefortzuko haurrei zuzendua. Irailaren 3tik 9ra Eginora. Informatu eta apuntatu zaitez Jardunen! Telefonoa: 943 76 08 19.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Brusa

Blusa. Gizonezkoen euskal jantzi tradizionala.
 - Dantzarixak, Bitorixako blusak eta olakuak erabiltzen dabena da brusia.



Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
 Tel. eta faxa: 943 76 33 01

IKUSBI

ALKANDORAK,
 JERTSEAK, BAKEROAK
 ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
 Tel. 943 76 74 09
 670 483 903

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia
 dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

- Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63



Udaleko Gizarte Zerbitzuak drogen menpekotasunari buruzko azterketa burutu berri du. Ikerketaren arduradunak behin datuak eskuan izanda, aurrera begirako asmoak azaldu dizkigu.

G. Zergatik erabaki zenuten drogen menpekotasunari azterketa egitea?

E. Guretako ikerketa lanerako tresna bat dela ulertzen dugulako. Errealitatea hobeto ezagutzeko balio dugu; eta bertatik ateratako indikadoreekin egiten dugun interbentzioa gidatzeko eta azaldutako egoerara egokitzeko baliagarria delako. Bestalde, aurretik egindako ikerketa duela 10 urtekoa da, eta zahartuta gelditu da. Gainera, 10 urte hauetan drogen inguruko gaiak aldaketa asko izan ditu.

G. Zergatik mugatu azterketa 12-18 urte bitartera?

E. Drogekin zerikusia dituzten arazoak ezberdintasunak izaten ditu populazioko sektore ezberdinetan. Ezin dugu barbarik egin orokorrean, ezta interbentzio orokorrak planteatu ere; adinaren arabera errealitateak ezberdinak dira.

1998ko Droga gaietarako Prebentzioa, Asistentzia eta Gizarteratzeari buruzko legeak adierazten duen bezala, drogen inguruko arazoetan egin beharreko esku-hartze guztietatik, prebentzioak du lehentasuna, eta batez ere, haur eta gazteenak. Beraz, guk, adin hori aukeratu dugu.


G. Zein da azterketaren helburu nagusia?

E. Hainbat ditu. Batetik funtzionalak, eta zentzu horretan aipatu dugun bezala, helburu nagusia gure lanerako gida bat izatea da. Bestetik ikerketak berak dituenak: adin horietan kontsu-

ARANTZAZU LOIDI

Gizarte Ongizateko teknikaria

«Herriko gazteen artean drogen kontsumoa nahiko hedatua dago»



Arantzazu Loidik du drogomenpekotasun azterketaren ardura.

moaren hedadura zenbaterainokoa den ikustea.

Familia, eskola, lagun eta denbora libre mailan arrisku egoerak zein neurritakoak diren ezagutzea.

Adin horretan dauden agente sozialek (irakasleek, orientadoreek, guraso elkarteetako kideek, zinegotzi...) prebentzioa bultzatzeko edota esku-hartzeko

zein premia, lehentasun e.a. duten, eta gai honetan euren inplikazioa, eta beste agenteena nola ikusten duten ere ezagutzea. Batez ere elkarlana bultzatzeko.

G. Zein dira kontsumoari buruzko datu adierazgarrienak?

E. Garbi dago, gehien kontsumitzen diren drogak, legalak direla: tabakoa eta alkohola. Alkoholaren kasuan astean zehar gehienak abstemioak dira, 10etik 9, baina asteburuetan, abstemioak %50era jaisten dira; eta 10etik 3k alkohol gehiegi kontsumitzen du.

Legez kanpoko drogetatik gehien kontsumitzen dena cannabisa da. Gazteen ia laurdenak porroen kontsumitzailea dela aitortzen du eta erdia pasatxok inoiz probatu dute. Bestelako legez kanpoko drogen kasuan (anfetamina, kokaina, diseinuko drogak...) ohiko kontsumoa %3 baino gutxiago da eta probatu dutenak berriz %10 baino gutxiago dira. Beraz, Bergarako gazteen artean drogen presentzia nabarmena da eta kontsumoa nahikoa hedatua dago; batez ere, alkohola, tabakoa eta cannabisa.

G. Azterketa eskuartearen duzuela, zein da emango duzuen hurrengo urratsa?

E. Lehendabizi ikerketan irteerako informazioa zabaldu nahi dugu. Horretarako prentsaren aurrean aurkezpen bat egin genuen eta baita eskola eta guraso elkartearen aurrean ere. Orain lan horrekin jarraituz, gurasoendako hitzaldia egingo dugu, hilaren 19an, 18:30ean kultura etxean eta beste aurkezpen bat herriko elkartearen artean hilaren 21ean ordu eta toki berdinean. Aurrera begira, egiten ari garen ekintzak ikerketan agertu diren premiei erantzuteko modura egokituko ditugu.

«Bi hitzaldi egingo ditugu informazioa zabaltzeko: hilaren 19an gurasoendako eta hilaren 21ean elkarteendako. Biak kultura etxean, 18:30ean»

Gogor gaitzetsi dituzte EAJ-EA, PSE-EE eta PPK domekako istiluak

EH abstenitu egin da, baina elkartasuna adierazi die kaltetu guztiei

Istiluen ondorioz, ezohiko bilkura izan zen eguenean. Alkateak gertakariak gaitzetsiz mozioa aurkeztu zuen. Aretoa komunikabidez jostata egon zen. Hainbat herritar ere izan ziren.

Mozioak bost puntu jasotzen ditu, honako hauek. Bat: Bergarako Udalak, herri osoaren aurkako eraso horren aurrean, gaitzezpenik gogorrena adierazten du. Bi: atsedean eta lasaitasun giroan jaiak ospatzen ari zen herriaren aurkako eraso anker hori gauzatu dutenek herri honekiko eta bereziki herri honen hitzarekiko duten mesprezua besterik ez dute adierazten. Hiru: Bergarako herriak, euskal gizarte osoak bezala, argi adierazi du elkarbizitzan oinarritutako eta biolentziarik gabeko etorkizuna nahi duela. Eraso hori burutu dutenek euren pentsamoldearekin ados ez dagoen gehiengoa zigortzea dute helburu. Lau: horrelako ekintza basatiak antolatzen dituztenek Bergarako herriaren aurrean erantzuteaz gain, horretarako erabil-



Barne Sailaren arabera, 50 kaputxadun inguruk eragin zituzten kalteak.
AP

tzen dituzten gazteen etorkizunari buruz ere erantzun beharko dute. Bost: ezker abertzaleari, eta bereziki udal honetan ordezkari duen EHri, herriaren aurkako erasoarekiko erantzun argia eman dezala exijitzen diogu, bestela, berriz, herri honen hitz eta erabaki askearen aurka azalduko baita.

Alkateak mozioa gaztelaniaz bakarrik irakurri zuen, eta hurbildutako hainbat herritarrek euskaraz irakurtzeko eskatu zioten.

Alderdi denak, EH salbatu agertu ziren mozioarekin. PPK, baina, puntu baten falta sumatu zuen: Barne Sailari erantzukizuna eskatzea.

EH ABSTENITU

Jesus Mari Garitanok EHren ordezkari gisa, mozioko 5. puntuaren inguruan tokiz kanpo dagoela esan zuen, eurak "beti garbi" hitz egiten dutelako, eta demokratik direla gaineratuz "herriaren erabakia beti errespetatzen" dutelako.

Bestalde, elkartasun garbia adierazi diete kaltetu guztiei, baita gertakarienean inguruan zeuden herritarrei ere. Horren ildotik, hainbat gauza ulertzen ez dituela gaineratu zuen: "gertakariak jaietan, jende ugari zegoen unean gertatu izana. Baina, egin den muntaia medioatikoa ere ez dut uler-

tzen", eta "atzean egon daitekeen helburu politikoa" zein den galdetu zuen.

HOGEI SALAKETA

Domekako gertakarienean, hogeit hamar salaketa jaso dira Victoriano Gallastegi alkatearen arabera: bost entitatek jarritakoak, eta beste hamabost kalteak jasan dituzten kotxeen ingurukoak.

Barne Sailaren arabera, goizaldeko ordu bata aldera hasi ziren istiluak, eta berrogeita hamarren bat kaputxadunek eragin zituzten kalteak. Iturri beraren arabera, berrogeita hamarrek, ondo antolatutako bi taldetan zeuden banatuta: talde batek euste lana egiten zuen bitartean, beste taldeak hainbat banketxe, denda bat eta posta etxea erasotu zituzten. Honako hauek: Rural Kutxa, Banco Santander, Banco Central Hispano, Correos eta Manso Optika.

Barne Sailaren esanetan, kaputxadunek koktelak eta suziriak erabili zituzten, eta hesi eta edukinontziez baliatuz, Fraiskozuri kalea moztuta izan zuten.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ATARI

Zure auzo elkarteko, etxebizitza eta garajeko arazoak konpontzeko gertu

Finka administrazioa. Kolegiatu zkoa. 574
Ibargarai 1. Tel. 679 378 192. Faxa 943 76 38 41

Kantina zaharra bota eta berria zabalduko dute Gorlan

Gorlako aisiagunean laster zabalduko dute Belatz kantina, joan den urteko irail hasieratik itxita egon ondoren. Udalak kantinaren kudeaketa bi aldiz lehiaketa publikora atera duen arren, hutsik geratu da. Hala ere, udalak, kantina Bergarako bi gazteri esleitzea lortu du.

Gazteen arabera, seguruenik, irekita egongo da kantina astebururako. Bestalde, ez dute ustiaketatik errentarik ordaindu behar izango. Baina kantina eta inguruak behar den moduan mantentzea euren arduraz izango da. Kantina irekita izateko egutegi eta ordutegia ere izango dute. Irekierak bat egiten du zaharrenean erauzketarekin.

Victoriano Gallastegi alkateak maiatzaren 28an egindako osoko bilkuran adierazitakoaren arabera, ekainaren 22an botako dute Gorlako kantina zaharra. Bestalde, bota eta berehala, kokatuta dagoen tokia txu-



Belatz kantina asteburuan irekiko dute. Zaharra (argazkian) 22an botako dute.

kundu egingo dute berdegune gisa erabili ahal izateko.

Alkatearen esanetan, LKS enpresa arduratu da kantina zaharra tasatzeaz, eta ia milioi eta erdi pezeta-ko indemnizazioa ordaindu beharko diete kantina zaharreko jabeek hura botatzeagatik.

UDALBILTZARI DIRUA

Maiatzaren 28ko osoko en bilkuran aztertutako beste

gai batzuen artean, Udalbiltzararako diru izendapena onartu zuen udalak, EHk aurkeztutako mozio baten ondorioz. EAJ/EA koalizioa mozioaren alde agertu zen. PSE-EE alderdiak, aldiz, mozioaren aurka bozkatu zuen.

Mozioaren arabera, Bergarako Udalak aurrekontuen %1 erreserbatuko du Udalbiltzararako, hau da, 27.516.000 pezeta emango dizkio erakunde horri.

Luis Etxeberria preso aske utzi dute

Luis Etxeberria preso egubakoitzean askatu zuten. Duela 7 urte atxilotu zuten, 1993ko abuztuaren 6an. Ertzaintzak atxilotu zuen, inguruko industrialarietara ETaren izenean dirua eskatzea leporatuta.

Operazio berean, beste hiru bergarar atxilotu zituzten: Iñaki Arietaleanizbeaskoa, Jabier Lazkano eta Jose Ramon Aiaastui.

Arratsaldeko 17:30 aldera utzi zuten aske, egubakoitzean, eta zapatuan ongiatorria egin zioten.



Luis Etxeberria.

Ciclos i2

ACOBIS taldea: zerbitzu hobea

TOKIZ ALDATU GARA.
Orain hemen gaude:

Barianteko bidegurutzea

Ertzaintza

Ibargarai

Bus geltokia

Arrizuri, 5

Pazkoetako lehiaketak

Jaietan parranda eta musika, antzerkia eta bestelako ikuskizunez gain (horien argazki sorta polita Goienkariako 11-14 orrialdeetan jasota duzue), hainbat lehiaketa ere izan dira: elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa, erreorte txapelketa eta Haur eta Gazteen XXI. Plastika sariketa. Lehiaketa horietako irabazleak eta irudiak orrialde honetan jaso ditugu. Bestalde, eguraldiak lagundu egin du jaiak hobeto igarotzen eta zapatu gaueko gertakariaz gain, ez da apartekorik izan. Bueno, akaso, aurreko urteetan baino jende gutxiago ibili dela.



Sukaldaritza lehiaketa

Aurten hamabi elkartek esku hartu dute lehiaketan. Bakailao onena Umore Ona elkarteko **Roman Garitanok eta Pepeluk** egin zuten, eta eurak hartu zuten lehen saria. Bigarren saria Pertxako **Jose M. Perezek eta Juan M. Corralek** lortu zuten, eta hirugarrena Pertxa Hermandadeko **Miguel Lazkanok eta Jose M. Etxeberriak**.

Plastika lehiaketa

XXI. Haur eta Gazteen Plastika sariketak 45 lagun batu zituen zapatuan. 9 eta 11 urte bitartekoak 15; 12 eta 14 urte bitartekoak 9, eta 9 urte artekoak 21. Esku hartzeagatik, Beart artisten elkarteko motxila polita jaso zuten. 29 saridunek, beste sari batzuk ere bai.



Errekortadoreen Euskadiko txapelketa

Unai Arana eta **Mikel Uribesalgo** bergararrak izan ziren garaile zapatuan jokotutako Errekortadoreen Euskadiko txapelketan. Bestalde, erreorte onenaren saria ere Bergaran geratu zen; **David Maestrek** irabazi zuen, iaz bezala. Zortzi bikotek esku hartu zuten txapelketan. Bergarako lauk, eta Nafarroa, Tolosa eta Donostiatik etorritako beste lauk.

Aipatzekoa da, bi parte hartzaile harrapatu zituztela zezenek. **Ander Murua** bergararrari, lau zentimetro sartu zion adarra zezenak izterrean. Hala ere, ondo dago. Tolosako parte hartzaile bati, izterrean adarra sartu eta hezur bat apurtu zion. Horren zauriak larriagoak izan ziren, eta ebakuntza egin behar izan diote.

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

**INGELES
FRANTSESA
ALEMANA**

Uztailaren 2tik 20ra.

- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.
- ADIN GUZTIAK:
HAUR, GAZTE ETA HELDU
- EGUNERO HIRU EDO LAU ORDU.


STONE HOUSE
HIZKUNTZAK

943 76 06 87. Ibargarai, 18.

MATRIKULA ZABALIK EKAINAREN 29ra ARTE

Berrigara

455 zenbakia.
2001eko ekainaren 8a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Berrigara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereibar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Ussoa Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Aguirre,
Juan Martin Elempuru, Arantzazu Uregi,
Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara

Tirada: 5.500 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jauriaritzako
Kultura saila

atrebentzia ezpada

Hilaren 15ian turismo bulegua zabalduko dabe. Zer erakutsiko zontsake bisittan datorren kanpotar bati?



Nekane Eskibel

Kanpotarra naizen arren, hamabi urte daroiat hemen, eta gauza asko dauzka Berrigarak ikusteko: udaletxia, liburutegixa, alde zaharra...



Jose Iturbe

Gauza mordua dauka ikusteko. Plazia, Santa Ana, plaza ondoko etxiak, Etxeaundi palaziua... Gauza asko dare erakusteko.



Naikari Medina

Alde zaharra, batez be. Baiña, baita inguruko auzo batzuk be, ermittak eta... Bazkaltzera Azpeitxi jatexera eruangon nittuzke.



Feliciano Diez

Oso herri ona da hau. Eraikin eder asko dauzka. Eta etxe berri asko be bai, oso politak. Dana erakutsiko neuke.



Miren Ugalde


Alde zaharreko etxe danak erakutsiko notsake. Eta bazkaltzera Zumelaganera edo eruangon nittuzke.



Jon Iturbe

Parkia, monumento historikuak, hotela, alde zaharra... Inguruko mendixak be bai.

tira biraka gorka ortega & jon alvarez



adituen esanetan

Putreak Araotzen

Araotzen sai arren (*Gyps fulvus*) Gipuzkoako koloniarik garrantzitsuenetako bat dago. 60-65 putre inguruko biztanleria egonkorra osatzen dute eta joan den urtean 22 bikote ugaltzaile erroldatu zituzten. Horietako bi bikotek Haxuri inguruan egin zuten habia eta gainerako 20 bikoteek Orkatzategiko paretan. Txiten heriotza-tasa oso altua da: hamaika bikotek bakarrik lortu zuten habiatik irtetea eta horietako batzuk hil egin ziren, galduta edo hegan zebiltzala oztopo baten kontra talka egin eta gero. Bestalde, urtero hiruzpalau putre hilik agertzen dira, isileko ehiztarien erruz. Linea elektrikoek ere putreen biztanlerian ondorio txarrak izaten dituzte eta azkenaldian Elgeako zentral eolikoak ere koloniaren murrizketan eragina izan dezakeela aztertzen ari da.

Sai arrak metro bat garai dira eta 2,80 metro zabal (hegalak zabaltzen dituztenean) izan dezakete. Nagusiki saraskia jaten dute eta, ondorioz, gure



JUANJO NOGUEIRAS

Naturazalea

«Araotzen sai arren
Gipuzkoako
koloniarik
garrantzitsuenetako
dago: 60 putre
inguruko biztanleria
egonkorra»

inguruan dauden putreak zuzenki artzaintzari lotuta daude. Hildako animaliak uzteko mandotegirik ez egon arren, askotan Aloña inguruan lagatzen diete janaria putreei. Putreen ikusmena gizakiona baino 20 aldiz hobea da eta, hori dela eta, saraskia milaka metroko distantziara lokaliza dezakete. Bestalde, korronte termikoak ondo baino hobeto aprobetxatzen dakite eta, hala, gutxieneko energia kontsumituz, egunean 100 kilometro erradion egiteko gai dira. Bizpahiru aste igaro ditza-kete janaririk hartu barik eta behin jaten hasitakoan euren papoa kilo eta erdi janarirekin bete dezakete.


Sai zuri (*Neophron percnopterus*) bikote bat ere etortzen da urtero gure inguruko parajeetara eta euren txita aurrera ateratzen dute. Beharbada, egunen batean katea osatzeko falta den kate-maila agertuko da eta orduan gure mendietan ugatzaren (*Gypaetus barbatus*) hegaldi dotorea ikusteko aukera izango dugu.



Aloñan honen moduko putreak ikus daitezke.

JUANJO NOGUEIRAS

bergarako zuhaitzak



Ginkgoa Usondoko parkean.

Ginkgo biloba

Usondo eta Errekalde parkeak aztertzerako orduan, munduko zuhaitz zaharrena aurki dezakegu: ginkgoa. Bere sorlekuan, Japonian eta Txinan, 200 miloi urte dela existitzen da espezie hori. Gaur egun Ginkgoa bizi iraun duen espezie gimnosperma bakarra dugu. Ginkgo Txinako tenplu eta leku sakratuen inguruan betidanik landatu den espezie sakratua da, eta horregatik, botanikoez diote inoiz ez dela desagertuko.

Ginkgoaren ezaugarri fisikoen artean, 40 metro luze har ditzakeen espezie honek zurtoina zuzena du eta 3-4 metrorainoko zirkunferentzia izan dezake. Adarkadura zabalekoa da, eta adar luzeen eta sakabanatuen artean arruntak ez diren 10 zentimetroko abaniko itxurako hosto zapalak aurki ditzakegu. Hosto erorkorrak ditu eta udazken aldera hostoen nerbio inguruek kolore horixka hartzen dute eta horiek erortzean itxura bereizgarria hartzen du. Udaberrian loratzen dira eta lore arrak gerba biribiletan elkartzen dira, emeek 2-3ko taldeak osatzen dituzten bitartean. Polinizazioa haizearen bitartez sortzen da, eta ernalketaren ondoren, fruitu haragitsu eta horixkak irteten dira. Haziak nahiko txikiak eta berdeak dira.

Bere hosto eta haziak ezaugarri terapeutiko garrantzitsuak dituzte eta medikuntza alternatiboan oso estimatua da, zirkulazioa hobetzeko eta, aldi berean, enbolia eta Alzheimer moduko gaixotasunei aurre egiteko.

Testua: Maitane Arizabaleta.

Zezenaren errekorra

Basalgoko **Mostei** baserriko hau Euskadiko zezenik handiena zela uste zuten. **Txato** martitzenean hil zuten Debagoieneko hiltegian, eta Euskadiko errekorra hausterik lortu ez zuten arren, Debagoieneko hautsi zuten. **1.000 kilo** pisatu zuten goitik behera zabaldua; Euskadiko errekorra, berriz, 1.204 kiloan dago. Hala ere, pozik azaldu ziren Mosteikoak. Argazkian, **Maria Loiti** Txatorekin.



Edadetuak sasoi onean

Halaxe erakutsi zuten joan zen maiatzaren 25ean. **Edadetuendako Debagoieneko X. kirol jaia** ospatu zuten Bergaran, Labegaraietako kiroldegian, hain zuten ere. Arratsaldeko 15:00etatik 17:30era etengabe aritu ziren era guztietako kirolak egiten Debagoieneko 400 bat lagun. Denetatik egin zuten: aerobica, hockeya, saskibaloia, esku pilota, tenisa...

Lazkao Txikiren bertsoak

Joan zen maiatzaren 26an, **Xabier Amurizaren ahotik Lazkao Txikiren bertsoak** entzuteko aukera izan zen Kartzela Zaharrean. Baita, batera, azalpen labur bat ere: noiz botatako bertsoa zen, zein egoeratan... "Lazkao Txiki, bat-bateko sorgina" izenburupean, omenaldi txikia egin nahi izan dio Amurizak Lazkaoko bertsolariari.



87 zorion!

Maiatzaren 27an, eguerdian, aurten **87 urte** bete dituztenei, edo beteko dituztenei, **omenaldia egin zieten San Joxepe elkarte-an**. Guztira, 40 lagunek beteko dute aurten 87 urte. Meza izan zuten, eta horren ostean, plaka bana eman zieten. San Joxepeko abesbatzak ere parte hartu zuten omenaldian, eta baita dantzariak ere, aurreku bat eskainiaz.

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32



Masterreka 19, behe. 943 76 46 53.

Ametz

TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALA
Shirley Garcia, akupuntore profesionala, 781 zkia.

Ansietatea, stressa, tabakoa, depresioak, gizentasuna

Tratamendu pertsonalizatuak
eta ondorio gabeak.

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Aintzane Irizar **Publizitatea:** Mireia Larrañaga **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Sergjo Azkarate, Gari Bragado **Telefonoa:** 943 76 03 97 **Faxa:** 943 76 29 77.

Antzuolako hamabostekaria, 80. zenbakia. 2001eko ekainaren 8a.

Haur Dantzarien Eguna herriko kaleetan domekan

Bi urtetik behin antolatzen dute Antzuolan egun hori

Oinarin dantza taldeak antolatuta, Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute datorren domekan, ekainak 10, Antzuolan. Sei herriko dantza taldeek esku hartuko dute, 250 bat ume guztira. Horietatik, ia hirurogei Oinarin dantza taldekoak dira. Bi urtetik behin ospatzen dute Antzuolan egun hori.

Inguruko herrietako zazpi dantza taldek esku hartuko dute domekan haurren egunean: Oñatiko Oñatz taldea, Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu dantza taldeak, Soraluzeke Urrats, Aretxabaletako Loramendi, Bergarako Xamatx dantza taldea eta Antzuolako Oinarin, hain justu ere.

Goizeko hamarretan herriko txistulariek kalejira egingo dute. 10:30 aldera iritsiko dira kanpoko herrietako umeak. 11:15ean, berriz, talde guztiek, txistulariekin batera, kalejira egingo dute.

Lehenengo dantza saioa 12:30ean egingo dute herriko plazan. Mutilek Luanakoa eta Txankarrankoa dantzatuko dituzte; neskek, berriz, Esku-dantza eta Arku-dantza. Gero, neska eta mutil, guztiek batera egingo dute dantza: Korulari, Eusko-dantza eta Makil Txikikakoa, hain justu.

Bazkalordurako, 13:30 aldera, umeak etxeetan banatzen hasiko dira antolatzailak. Ia 100 etxetan bazkalduko dute umeek. Antolatzailak eta begiraleak, berriz, 60 lagun, Olalde elkartearen bazkalduko dute.

Bazkalostean, jolaserako aukera ere izango dute umeek, izan ere, arra-



Oinarin dantza taldeko 60 bat umek parte hartuko dute domekan.

tsaldeko saioa ez da 17:00ak arte hasiko. Herriko plazan izango da hori ere, eta talde bakoitzak dantza berezi bana egingo du.

Guztiek euren dantza eskaini eta gero, denek batera hainbat dantza egingo dituzte: Zazpi Jauzi, Txulalai eta Saint Petit dantzak hain zuzen ere.

OINARIN TALDEKO 60 BAT UME

Esan bezala, 250 bat umek esku hartuko dute datorren domekan Antzuolan. Sei eta hamabi urte bitartekoak izango dira guztiak. Horietatik, 60 bat Oinarin dantza taldekoak. Ume eta nagusi, denak kontuan hartuta, berriz, ia 90 bat dantzari ari dira Antzuolako taldean.

■ ■ ■
Eguerdiko 12:30ean eta arratsaldeko
17:00etan izango dira saio nagusiak
■ ■ ■

Euskal selekzioa izan zuten hizpide hainbat euskal kirolaririk

Euskal selekzioaren gainekoa baino, aldekoa izan zen mahai ingurua


Joan den asteko eguazteneko mahai ingurua euskal selekzioaren gainekoa izan zen, baina euskal selekzioaren aldarrikapena izan zela ere esan genezake. Ez zen jendetzarik izan, baina han izan ziren gustura egon ziren, behinik behin. Kirolari ezagunak tartean izanda, gainera, umeak nagusi.

Athleticetik Joseba Etxebarria etorri zen; Realetik, Aitor Lopez Rekarte eta Igor Gabilondo; Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldeko (ESAIT) kide bat ere izan zen, Gabriel Falero "Txiki" hain zuzen; eta, azkenik, baita antzuolar bat ere, Aritz Berraondo pilotaria. Moderatzaile, berriz, Anartz Agirre GOITBko kazetaria izan genuen.

Berandu samar hasi zen, (Realeko ei kosta egin zitzaizen helduek), hogeimitu berandu. Udaletxeko arkupeetan elkartu ziren ume guztiak urduri zeuden ordurako. Izan ere, kirolari handiak ziren tartean, eta ondo prestatuta agertu ziren ume guztiak, nork bere papera eta bolaluma eskuan hartuta. Hala ere, mahai ingurua bukatu arte itxaron behar izan zuten, Realekoak heldu bezain laster hasi zen-eta mahai ingurua.

Hasteko, ESAITek egindako bideoa ikusi ahal izan genuen: euskal kirolari, kirolariei eta euskal selekzioari buruzko errepasoa egiten zuen, eta hausnarketarako deia ere egiten zion ikusleari.

Kirol guztietan lortu nahi dute euskal selekzioa: sokatiran dela, surfean dela edo futboleko dela, nahiz eta gehienok Gabonetan futboleko euskal selekzioak jokatzen duen partiduekin lotu euskal selekzioaren gaia. Gabriel Falero oso baikor azaldu zen. Izan ere, bere us-



Realekoak, Athleticcekoak, Txiki, Berraondo eta Anartz Agirre kazetaria.

tez, duela urte batzuk amets utopikotzat jotzen genuen gehienok euskal selekzioa lortzea. Orain, berriz, eta, besteak beste, ESAITek egindako lanaren ondorioz, lor daitekeen zerbait dela ikusten du gizarteak.

Bere ustez, "oso ondo dago lagun arteko partiduak jokatzea euskal selekzio moduan, baina hurrengo pausoa eta azken helburua ofiziala izango den eta euskaldun guztiok ordezkatzeko gaituen selekzioa lortzea izan behar du", eta ho-

rren alde lanean jarraitzeko asmoa erakutsi zuen ESAITeko ordezkariak.

FESTA HANDIA OSPATU ZUTEN TOLOSAN

ESAIT duela bost bat urte sortu zuten. Duela hiru, berriz, euskal selekzioaren aldeko jaia antolatzen hasi ziren. Aurtengoa Tolosan ospatu zuten joan den domekan, ekainak 3. Festa eguna izan zen, baina baita, era berean, aldarrikapen eguna ere.

■ ■ ■
Euskal selekzioa lortzea posible dela
ikusten du gizarteak, ESAITeko kideen ustez
■ ■ ■

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43


AITZ-GARBI



taberna
jaketxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51



Tenisa eta patinaia izango dira udako kirol eskaintza nagusiak. ARTXIBOA

Udan ere izango da kirola egiteko nahiko aukera

Gazteendako, helduendako... denendako egongo da kirol eskaintza udari begira. Uztailaren 2tik 12ra praktikatu ahal izango dira hainbat kirol. Izena emateko epea ekainaren 22an amaituko da, eta parte hartzaile bakoitzak 2.000 pezeta ordaindu beharko ditu. Besteak beste, tenisa, patinajea, boleibola eta badmintona egin ahal izango dituzte.

Eskaintza gazte zein helduei zuzendua dago, esan bezala. Gazteen kasuan, 13 eta 20 urte bitartekoei, goizean izango dutela kirol horietarako aukera. Helduen kasuan, berriz, uztailaren jendea lanean ari denez, arratsaldean egin beharko dute kirola. Aukera paregabea, hortaz, Antzuolako jaietarako sasoi onenean egon ahal izateko.

AZKARATE-JAUREGI ETA BITERI AITA-SEMEAK PALETAKO TXAPELDUNAK
Maiatzaren 26an, jokatu zituzten paleta txapelketako finalak. Bi mailatan jokatu da txapelketa; lehenengo mailan, Oskar Azkaratek eta Tomas Jauregik eraman zuten txapela. Bigarren mailan, ostera, Biteri aita-semeek irabazi zuten finala.

AIHERRARA IRTEERA

Ekainaren 17an izango da hori. Aiherrako frontoia inauguratuko dutela-eta, hainbat ekitaldi egingo dituzte aihertarrek. Hala, ospakizun horietara joateko autobusa antolatuko du udalak. Doan izango da autobusa eta joan nahi dutenek, liburutegian edo udaletxean eman beharko dute izena.

ANTZUOLATIK DONOSTIARA OINEZ

Arrolak Antzuolatik Donostiara oinez joateko ibilaldia antolatu du, biharko, zapatua. Bueltarako autobusa egongo da. Bidean ere hainbat tokitan egongo da autobusa, ibilaldi osoa egin nahi ez dutenentzat. Doan izango da irteera hori. Ekainaren 17an, berriz, mendira eta hondartzara joango dira Arrolakoak. Oraindik zein menditara joan erabaki ez duten arren, Getariako hondartzara joango dira ondoren. Izena emateko azken eguna ekainaren 12a izango da. Gazteek 500 eta helduek 1.000 pezeta ordaindu beharko dute.

Dinosauro erakusketa bihar zabalduko dute

Bihar, zapatua, zabalduko dute udaletxeko areto nagusian dinosauro erakusketa. Ekainaren 9, 10, 16 eta 17an egongo da zabalik, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30era. Astean barrena erakusketa ikusi nahi izanez gero ere, badago aukera, udaletxera deituta. Dinosauroen gaineko hitzaldia ere eskainiko dute hilaren 16an.



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1. ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

LEKU-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

Leire Lizarralde, udalekuetako koordinatzailea

«Ume nintzela, izugarri gustatzen zitzaidan udalekuetara joatea»

Uztailaren 2tik 12ra izango dira udalekuak Antzuolan. Bederatzi begirale arituko dira, Leire Lizarralde tartean. Bera izango da, gainera, udalekuetako koordinatzailea. Leirek 22 urte ditu eta Irakasletzan Haur Hezkuntza ikasten dihardu.

Duela zenbat urte hasi zinen Antzuolako udalekuetan begirale?

Lauzpabost urte izango dira. Udalekuetan begirale aritzeaz gain, Gaztetxokoan ere ibili izan naiz.

Zelan animatu zinen?

Ume nintzela, udalekuetara joaten nintzen, eta asko gustatzen zitzaidan, gainera. Nik uste dut hori izan dela udalekuetan begirale hasteko arrazoietako bat. Halaber, umeak ere asko gustatzen zaizkit, eta hori da beste arrazoi bat. Horregatik ari naiz Haur Hezkuntza ikasten.

Zer adineko umeendako dira udalekuak?

Txikienek bost urte dituzte; nagusienek, berriz, 12. Adinaren arabera hainbat talde egiten dira: bost eta sei urtekoekin talde bat, zazpitik bederatzi urte bitartekoekin beste talde bat eta, azkenik, hortik aurrerakoak. Hiru adin tarteko zortzi talde ditugu aurten.

Zenbat umek eman dute izena oraingoz?

Normalean, 100 bat ume ibiltzen dira udalekuetan; baina, aurten, 70 bat umek eman dute izena. Izena emateko epea igaro den



Leire duela lau urtetik da begiralea.

arren, beti egoten da azken unean etortzen denik ere, baina aurten ez dira izango 70 baino askoz gehiago.

Zenbat begirale arituko zarete umeekin?

si dugun egitaraua azaltzea. Era horretan, eurak informatzeaz gain, euren ikuspuntua ere kontuan hartu nahi dugu.

Zelako ekintzak antolatu dituzue?

Denetariakoak egongo dira. Alde batetik, ume guztiek batera egingo dituzten ekintzak daude: San Ferminak, eta Trekutzerako eta Donostiarako irteerak.

Bestalde, talde bakoitzak bere aldetik ere hainbat ekintza egingo ditu: eskulanak, jolasak... Azken egunean, berriz, bazkaria izango dugu plazan.

■ ■ ■
 «Gurasoekin batzarra egingo dugu, udalekuen gaineko informazioa emateko»
 ■ ■ ■



Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
 Altzari rustikoetan
 espezializatuak

LARREA

TABERNA

**Kalebarren 17
 ANTZUOLA**

1936xan jaio zan La Rambla herrixan, Kordoban, eta 1962an etorri zan Bergarara. Lehengo Madina torlojogintzako fabrika ibilli zan lanian, eta zazpi bat urtetik hona plazako kioskoan dabil semiakin. Hiru seme-alaba eta bi biloba dauzka.

Pedro Luque

Kiosko dotoria estreñatu dozue...

Udalak aukeratu zeban modelua eta nun jarri, eta guri ordaintzia tokau jaku.

Periodiko eta errebista artian egonda, zein periodiko irakurtzen dozu?

Bat be ez. Titularren errepasua egitten dot bakarrik.

Zein albiste irakurtzia gustauko jatzun?

Mundua konpondu dala eta danok hobeto bizi garea.

Badago beti irakurtzen dozun zutabegilleren bat?

Ez, *El Diario Vasco*ko azken orrialdekua noizian behin.

Noiz saltzen da periodiko gehixen?

Egun danetan antzera. Astebukaeran zertxobait gehixago, biharbada...

Gizonezko ala emakumezko gehixago etortzen da kioskora?

Erdi eta erdi. Aste barruan igual emakumiak.

Periodikuetako bildumagarrixak egitten dittuzu?

Ez. Liburuak irakurtzen dittut bakarrik.

Irakurtzeko momenturik onena?

Gaba, lotara noianian.

Idazlerik gustokuena?

Abenturazkuak: Julio Verne, Salgari...

Zein ordutan jaikitzen zara?

Goizeko lau eta erdixetan. Badago ni baiño goizago jeiki eta egunkarixa lapurtzen dostanik be.

Zenbat ordu egitten dozu lo?

Zazpi bat. Goiz juaten naiz ohera.

Laneko gauzarik onena?

Jendiakin tratua.

Eta txarrena?

Oso lotua dala. Urtian hiru egunian bakarrik ixten dogu kioskua.

Negua gogorra egin jatzu?

Bai, kioskuan hotza edo beroa jasatia ez da atsegiña.

Denbora librian zer egitten dozu?

Gurutzegramak. Pasiuan be juaten naiz.

Pasiazeko toki bat?

Ahal dotenian Mekolaldera jua-entorrixa egitten dot.

Kirol bat?

Lehen, futbola, baiña gero eta gutxiago ikusten dot, diruak agintzen dabelako.

Zeñek irabaziko dau Girua?

Ez nabil jarraitzen.

Telebisiñua ala irratixa?

Irratixa.

Gran Hermano ikusten dozu?

Ez, ez jat interesatzen horreik kontuok.

Janari eta edari bat?

Paellia eta ura. Ardaux gutxittan edaten dot.

Sukaldari ona zara?

Ez.

Zer egin dozu Pazkuetan?

Lan egin bihar izan dot.



ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxategi 8 ☎ 943 76 15 09



KORTA ZAR

Inaugurazioa ekainaren 12an 19:00etan

Barrenkalea, 16 ☎ 943 76 20 62

INGELES IKASTARO TRINKOAK

Ekainaren 26tik uztailaren 20ra arte

HAURRENTZAT
GAZTEENTZAT
HELDUENTZAT



School of English

INFORMAZIOA:
Ibargarai 31, barruko plaza.
Tel. eta faxa 943 76 03 53.
espolonschool@teletel.es

MATRIKULA ZABALIK



Hiru eta hamaika urte bitarteko zortzi umek ikasten dute Angiozarko eskola txikian. Eskuman, domekako jaiko logoa.

Gipuzkoako eskola txikien konfederazioa orain dela hamalau urte hasi zen jai hau antolatzen. Angiozarren lehen aldiz ospatuko dute. Egun osorako, era guztietako ekitaldiak antolatu dituzte, baina, batik bat, umeendako jolasak eta ikuskizunak izango dira, eurak dira-eta, azken batean, protagonista nagusi.

ESKOLA TXIKIEK BIZIRIK DIRAUTE

Horixe adierazi nahi diote gizarteari jai horrekin; eta horrexegatik hasi ziren orain dela hamalau urte Eskola Txikien jaia ospatzen. Garai hartan, eskola txikietako irakasleek eskola txikiak bizirik zirela ospatu beharra zegoela sentitu zuten. Bestalde, eskola txikiak berrindartu beharra zegoelako ere sortu zen jaiegun hori. Izan ere, ez ziren garairik onenak eskola txikiendako; hainbat herritan desagertzeko zorian zeuden, eta berrindartzen hasi beharrean zeuden. Baina handik urte batzuetara, ira-

Eskola txikiak, jai handia!

Aurtengo festa Angiozarren ospatuko dute domekan

Angiozar festarako gune bilakatuko da datorren domekan; baina ez hori bakarrik. Jai giroa izango da nagusi, baina aldarrikapen festa izango da era berean. Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik lelopean ospatuko dute Angiozarren Gipuzkoako Eskola Txikien jaia.

kasleengandik sortutako ekimen horrekin gurasoek jarraitu zuten.

900 UMEK ESKU HARTUKO DUTE

Eta ez bakarrik egun-pasa etorri eta jolasean aritzeko. Goizeko 10:30ean Gipuzkoako eskola txiki guztietako umeek euren emanaldia eskainiko dute

frontoian. Eskola bakoitzak bere ikuskizuna ekarriko du: dantzak, abestiak, antzezlanak... 27 eskola txiki dago guztira Gipuzkoan, eta, esan bezala, 900 bat ume guztira. Euren txikitasunean, hala ere eskola desberdinak dira; txikienean zazpi ikasle ari dira, eta handienean, berriz, 121 umek ikasten du.

MUJIK UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan

*Irekiera
komisioa:
%0,25.
35 urte
bitarteraino

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

DEBAGOIENEAN, BI

Bi eskola txiki besterik ez da geratzen Debagoiengan. Bat, Angiozarkoa. Bestea, herriz, Elgetakoa. Angiozarko eskolan zortzi umek dihardute, eta hurrengo ikasturteari begira, kopuru horri eustea espero dute. Bi irakasle dituzte ume horiek. Elgetako eskola txikiari dagokionez, txikia izanik, handia dela ere esan genezake Angiozarkoarekin alderatuz, behinik behin; 70 bat ikaslek dihardute hantxe.

Hala ere, duela urte gutxi arte baze- goen eskola txiki gehiago Bergaran eta inguruetan. Uberakoa, esate baterako, duela zazpi bat urte itxi zuten. Gatzagan eta Osintxun ere bi ikasgela txiki daude, nahiz eta ez diren eskola txiki independenteak. Gatzagakoa Eskoria- tzako eskola publikoaren gela bat da; Osintxukoa, ostera, San Martin ikaste- txaren gela bat.

HERRI TXIKIEK IRAUN DEZATEN

Jaia eskola txikien aldeko aldarrikape- na dela argi geratu zaigu dagoeneko. Baina ez da hori bere helburu bakarra. Horrekin batera, helburu sakonagoa ere badarama bere baitan. Batak bestea dakar. Baita besteak bata ere. Herri txi- kiek bizirik iraungo badute, beharrez- ko dituzte eskola txikiak. Era berean, eskola txikiek iraungo badute, behar- rezko dute herri edo auzoak bizirik egotea; horixe da eskola txikien konfe- derazioaren ustea.

Ildo horretatik, Angiozarren eskola- ri bakarrik baino, bestelako azpiegitu- rei garrantzi handia ematen diete, bai eskolako irakasleek, baita guraso elkar- teak ere.

Etxebizitza berriak egitea, esate ba- terako, oso garrantzitsua da angiozarta- rren ustez. Gutxi barru hamabi etxebi- zitza egingo dituzte, eta irakasleen us- tez, oso positiboa izango da hori, he- rriari bizitasun eta aukera gehiago za- balduko zaizkio eta.



Umek eurek egindako mural honekin emango diete angiozartarrek ongi-etorria jaira datozeinei.

Eskola txikien eguneko egitaraua

DOMEKA, ekainak 10

- Ongi etorria kanpaiekin.
- 10:15: Hasierako ekitaldia.
- 10:30: Eskola txikietako haurren emanaldiak.

13:00etatik aurrera:

- Tailerrak eta puzgarriak.
- Jokulandia: gazteluak, txi- rristak eta beste hainbat jo- ko.
- Haur ludoteka.
- Tailerrak.
- 13:30: Xamatx dantza taldea.
- 14:30: Bazkaria.
- 16:00: 'Elvi el ventriloco' frontoian.
- 17:00: Detraka animazio taldearen

'Txikiglub' ikuskizuna.

18:30:

- Zezenak eta poniak.
- **Egun osoan:**
- Erakusketa: eskolako haurren eskulanak.
- 'Lagunak' txaranga.
- Jarduneko trikitaliak.
- **Autobusak:** Goizeko 11etan irtengo da lehenengoa Bergarako geltokitik, eta eten barik ibiliko da. Azkena, Angiozarretik jaisteko, 20:00etan.

Bestetik, auzoan dauden hainbat baserrietako bideak konpondu eta egin beharra ere badago. Izan ere, Angio- zarko baserri batzuk ez daukate Angio- zarrera iristeko zuzeneko biderik; ho- rregatik, Arrasatera edo Elgetara joan behar izaten dira, horrela, auzoarekin duten hartu-emana galduz.

EREÑOZUTARRENDAKO LEKUKOA

Ereñozuko eskola txikiko ordezkariak jasoko dute Angiozarkoen lekukoa. Izan ere, datorren urtean hantxe ospa- tuko dute jai hori, eta lapitz itxurako le- kuko bat emango diete ereñozuarrei, Jon Balentziaga artista bergararrak egindako lekukoa hain zuzen ere.<

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

 **DEBA
GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

 **iRUDI**
Erloju denda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
943 76 51 65

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

Muguruza eta Gutierrez Bergara Hiria txapelketako finalerdietan

Bergarako taldea herri arteko txapelketatik kanpo

Ander Muguruza eta Igor Gutierrez Bergara Hiria txapelketako finalerdietan izango ditugu. Martitzenean, hilak 12, Muguruzak eta Peñagarikanok Mikel-Casado bikotearen aurka jokatuko dute eta ekainaren 19an, Larraia-Navarro eta Castellanos-Gutierrez bikoteek neurtuko dituzte indarrak.



Ander Muguruza (eskuman) Peñagarikano azpeitiarrekin ari da jokatzen Bergara Hiria txapelketan.

Final-laurdenetako kanporaketan, senior mailan, Muguruzak eta Peñagarikanok Ubera II.a-Laskurain bikotea gaingitu zuten, 22-12. Castellanosek eta Gutierrezek, berriz, Irigoien eta Bengoetxea kanporatu zituzten (22-20). Bestalde, promes mailan, Joseba Herran bergararrak ezin izan zuten aurrera egin, Mendizabalekin batera Vicente-Torres bikotearen aurka 22-19 galdu ostean.

Martitzenean, hilak 12, lehen finalerdiak jokatuko dira udal pilotalekuan, 19:30ean. Promes mailan, Zabala-Oteiza eta Moran-Gurrutxaga bikoteak izango dira aurrez aurre eta seniorretan, Muguruzak eta Peñagarikanok Mikelen eta Casa-

doren aurka jokatuko dute. Bergarako aurrelariak ez du partidu erraza izango, Mikel iazko txapeldunetako bat delako. Senior mailako beste finalerdian, Castellanosek eta Gutierrezek Larraiaren eta Navaroren aurka jokatuko dute hilaren 19an. Larraiak eta Navarrok federazioen arteko txapelketan Nafarroa ordezkatzan ari den bikotea osatzen dute eta, hortaz, Gutierrezek eta


Castellanosek gogor jokatu beharko dute finalera heltzeko.

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Herri arteko txapelketan, Bergarako taldeak 2-1 galdu zuen zapatuan Azpeitian eta, horrela, herri arteko txapelketatik kanpo geratu da. Bergaran ere emaitza berarekin galdu zuten pilotari bergararrek. Zapatuan, Ibai Altunak eta Asier Larra-

ñagak 22-5 galdu zuten kadete mailan; gazte mailan, aldiz, Julen Aranburuk eta Joseba Herranek erraz irabazi zioten Azpeitiko bikoteari (22-11) eta, azkenik, seniorretan, Iker Zabaletak eta Ander Muguruzak 22-11 galdu zuten. Final-laurdenetarako ez sailkatu arren, Bergarak txapelketa ona egin du, aurretik Arrasate eta Donostiako taldeak kanporatu zituen eta.

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozi plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



Kruz Gallastegi, 1. 943 76 54 69

Kadete mutilen eskubaloi taldea hirugarren kopa txapelketan

Bergara KEko kadete mutilen eskubaloi taldeak ezin izan zuen kopa txapelketa irabazi. Finala, aurreneko aldiz, hiru talderen artean jokatu zen, zapatuan, Labegaraietako Kiroldegian. Hondarribia, Elgoibar eta Bergarako taldeek 20 minutuko partiduak jokatu zituzten elkarren aurka. Bergarrek launa berdindu zuten Hondarribiko taldearen aurka eta 2-8 emaitzarekin galdu zuten Elgoibarren kon-

tra. Elgoibartarrak izan genituen txapeldunak, hondarribitarrei irabazi ondoren. Edu Iñarra, Aitor Ibarra eta Edu Egurennek entrenatzen duten taldeak denboraldi ona egin du. Iñarraren arabera, «kopa eskuratzea oso zaila geneukan, Hondarribia eta Elgoibarrek talde indartsuak dituztelako. Hala ere, pozik gaude aurten lortutakoarekin. Datorren urtean ere hor aurrean izan gaitzke».



Kadete mutilen eskubaloi taldeak denboraldi ona egin du.




Pentekoste sarian Jesus Hernandez irabazle

Iberdrola taldeko Jesus Hernandez txirrindulariak irabazi zuen domekan jokaturako Pentekoste Sariaren LXVI. ekitaldia. Hernandezek sprintean lortu zuen garaipena, helmugan Olarra taldeko Jonathan Gonzalezi nagusitu ondoren. Lasterketan 123 txirrindularik hartu zuten parte eta 64 helmugaratu ziren, 125 kilometroko ibilbidea bete eta gero. Lehen bergararra Jon Mendizabal (CDR) izan genuen, 24. postuan. Taldekako saria Iberdrolak lortu zuen.

POL-POL Taberna

943 76 07 78



MIZPILDI




OKINDEGIA

Matxiategi 1

943 76 72 73

Mizpildi 8

943 76 12 32



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea

BERGARA

943 76 00 57

630 261 617



**rock
&roll
nazkatu
arte!!!**

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.


Tf. 943 76 71 19



Labegaraietako futbito txapelketa

Bar Ugarte eta Errotagain, talde onenak

Bar Ugarte eta Errotagain taldeek (biak A multzokoak) txapelketako talderik indartsuenak direla erakutsi dute. Liga zein kopako finalak elkarren aurka jokatu dituzte. Ligako finalerdietan Bar Ugartek Mongatxurra taldea kanporatu zuen; partidua hirunako berdinketarekin amaitu zen eta penalti jaurtiketetan Bar Ugarte nagusitu zen. Errotagainek A Ze Flaxa uste baino errazago kanporatu zuen (7-1).



EMAITZAK

Bar Ugarte-Bayer	3-2
Kanpazar Harrobiak-A Ze Flaxa	1-4
Errotagain-A Ze Flaxa	7-1
Bar Ugarte-Mongatxurra	3-3

PARTIDUAK

ZAPATUAN, LIGAKO FINALA	
20:00: Errotagain-Bar Ugarte	Antolaketa
DOMEKAN, KOPAKO FINALA	
12:00: Bar Ugarte-Errotagain	Antolaketa

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	54	22
2. Errotagain	52	22
3. Bildurbarek Opel Lam	43	22
4. Amoskibar	39	22
5. Pagomendi	34	22
6. Bar Canalejas	32	22
7. Fac	27	22
8. Eri	22	22
9. Irubide jatetxea	18	22
10. Torrekua	7	22
11. Apa Oxemai	4	22

B multzoa

	P	J
1. Orzi	42	19
2. Kanpazar Harrobia	41	19
3. Bayer	32	19
4. Amilotx	31	19
5. Aluminios Kresala	30	19
6. Agirrebeña jatetxea	18	19
7. Vacalouras	15	19
8. Cine Bank Irimo	11	19
9. Etengabe	4	19

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	39	17
2. Artusamak	37	17
3. Mongatxurra	36	17
4. Guadalest	27	17
5. Komando Piperrak	25	17
6. Shaktale	17	17
7. Txipiron	16	17
8. Patxaran Team	8	17

Informazio hau, ondorengo babesleei esker:

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Piszinak zabalik astelehenean

Kanpoko igerilekuak astelehenean, hila 11, zabalduko dituzte. Udako denboraldian 10:00etatik 21:00etara izango dira zabalik.

Larrañaga karateka bikain

Shotokan karate taldeko Markel Larrañaga bikain aritu zen Euskadiko Eskolarteko txapelketan, Artxandan. Infantil mailan kumitetan (borroketan) lehena izan zen eta kateetan, berriz, bigarren sailkatu zen.

karteldegia

PILOTA. Bergara Hiria

Zabala-Oteiza/Moran-Gurrutxaga (promes.)
Mikel-Casado/Muguruza-Peñagarikano (seniorrak)
Final erdietetako partiduak.
Martitzena, 19:30. Udal Pilotalekua.

ipintzako txapelketa

SENIORRAK

Killers-Torrekua Zapatua. 9:00.
Angiozar-Down Zapatua. 10:15.
Osintxu-Getokoak Zapatua. 11:15
Mongitxarra-A Ze Flaxa Zapatua. 12:30.
Altos Pornos-Tojhu Astelehena. 19:15.
La Juve-Bildurbarek Astelehena. 20:30.
Fo Fo Fo-Txokokuak Martitzena. 19:15.
Mongatx.-Game Over Martitzena. 20:30.
Mongitxarrak-Gore Eguaztena. 19:15.
Down-Drink Team Eguaztena. 20:30.

NESKAK

Arloteak-Amilotx eta
San Marti-Lotsagabeak (alebinak)
Egubakiutza, ekainak 15. 18:00.
Mariaren Lagundia-Elgeta eta
Fashion Fashion-Txotx (kadeteak)
Egubakiutza, ekainak 15. 19:00.
Eibartarrak-Jo ta ke (kadeteak) eta ç
Potzu ta zapaburuak-Lai lai lai (seniorrak)
Egubakiutza, ekainak 15. 20:00.
Pentol's Team-Arranua eta
Arloteak-Ou pitxu ou (seniorrak)
Egubakiutza, ekainak 15. 21:00.
FUTBOL 7
Bar Canalejas-Arloteak eta
A Ze Flaxa-Bildurbarek Eguena. 19:30.
Guipuzcoana-Angiozar eta
Amilotx-Ezinleike Eguena. 20:30.

GASTON Y DANIELA



Inglesina®



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala

Udako Ikastaroak / Barnetegiak



Lotsarik gabe!

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Eskaintza

EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZE eta EGA.

Erritmoak

Egunean 4 edo 5 ordu, goizez.

16 urtetik gorakoentzat.

Bulego ordutegia

Goizez: 08:30-12:30 • Arratsaldez: 14:30-18:30

Ikastaroaren iraupena

Ekainaren 26tik uztailaren 20ra.

Matrikulatzeko epea

Ekainaren 11tik 22ra.

Barnetegia

Uztailaren 1etik 15era ZERAINen.




BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

bonofotoa

Zein arbola mota dira Telesforo Aranzadi kalekoa eta Usondo etxe aurrekoa?

galde debalde

1. Aurrekontuen zein portzentaia erabaki du udalak Udalbiltzarako erreserbatzea?


- A- %3
- B- %0,1
- C- %1

2. Zenbat umek esku hartuko du Angiozarko Eskola Txikien Jaian?

- A- 900 umek
- B- 8 umek
- C- 121 umek

3. Zeinen bikote da Igor Gutierrez pilotaria Bergara Hiria txapelketan?

- A- Castellanos
- B- Muguruza
- C- Peñagarikano



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Jose Antonio Laskurain**entzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Jose Antoniori! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Pazko egunetik 50 egunera (Piztuera)** Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Sunny Delight
freskagarria, litro eta erdi

129 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Benito Canterok lehen saria Bergara Hiria argazki lehiaketan

Berrogeita hamahiru lagunek esku hartu dute, Pol-Pol argazki taldeak antolatutako Bergara Hiria XVII argazki lehiaketan. Cantero bergararrak lehen saria jaso du koloretako argazkietan.



Industria lanarekin Imanol Mondragonek herriko onenaren saria jaso du.

Benito Canterok *Arrainak* lanarekin jaso du saria koloretako modalitatean.

Bigarrena Adolfo Vazquez errenteriarrek jaso du, *Faro* lanarekin. Hirugarrena Orduñako Koldo Badillok, *Desguace* lanarekin, eta, bergarar onenaren saria koloretan Oihana Garitanoren-tzat izan da, *Diptiko III* lanagatik.

Zuri-beltzeko argazkien modalitatean, Javier Pedro Fernandez berangarrak jaso du lehenengo saria, *Mic-*

Mic lanarekin. Bigarrena Adolfo Vazquez errenteriarrendako izan da, *Tren* lanarekin. Hirugarrena Andres Indurain irundarraren *El Gigante* lanak jaso du. Bergarar onenaren saria Imanol Mondragonek jaso du, *Industria* lanarekin.

PARTE HARTZE HANDIA

Aurten, berrogeita hamahiru lagunek esku hartu dute XVII. Bergara Hiria argazki lehiaketan: 29 koloretan eta 24 zuri-beltzean. Guztira 182 argazki aurkeztu dituzte: 100 koloretan eta 82 zuri-beltzean.

Josune Fernandez eta Alex Torre garaile Euskadiko Dantza Sueltoiko txapelketan

Domekan, hamabost urtez azpikoendako Euskadiko XXIV. Dantza Sueltoiko txapelketan, Josune Fernandez eta Alex Torre bergararrak izan dira garaile, hirugarren urtez jarraian.

Hamabost bikotek esku hartu zuten txapelketan, ho-

rietatik hiru, Bergarakoak: Izarne Medina eta Hiart Bolinaga (11.), Ibane Baseta eta Mikel Igartua (6.) eta Josune Fernandez eta Alex Torre, irabazleak.

Txapelketarako kanporaketak domeka goizean jokatu ziren. Hogeita bost bi-

kotek esku hartu zuten eta hamabost sailkatu ziren arratsaldeko txapelketarako. Kanporaketan herriko bikote hauek aritu ziren txapelketarako sailkatutakoez gain: Marina Urriolabeitia eta Aitor Miner, eta Amaia Bolinaga eta Aritz Arrillaga.

Udaleko XVI. literatura lehiaketara 303 lan aurkeztu dira

Sari banaketa zapa-tuan, 12:00etan egingo dute, Zabalotegin. 1985. urtean edo aurretik jaiotakoetan lehen saria Ariane Menorrek eraman du *Zuk nabi duzuna* lanarekin; bigarrena Agurtzane Crespok; hirugarrena Erik Cuevasek eta Natalio Juaristik sari berezia. 1986-87-88an jaiotakoen artean hauek eraman dute saria: Iñaki Manuelek lehena, *Belaunaldiz-belaunaldi* lanarekin; Jone Murua-mendiarazek bigarrena; Itsaso Azkargortak hirugarrena; eta laugarrena Maite Bolibarrek.

1989-90ean jaiotakoak: lehen saria Arianna Arizabaletak jaso du *Pitxilore arazoetan* lanarekin. Bigarrena Ander Urriolabeitiak eta hirugarrena Mireia Amasorrainek. 1991-92an jaiotakoak: Miren Zaloiak jaso du lehen saria *Gal-tzerdien gorabeherak* lanarekin. Bigarrena Maite Arantzabalek eta hirugarrena Idoia Larrañagak. Azkenik, 1993-94an jaiotakoen artean: Jokin Etxaberen *Zaldia eta otsoa* lanak jaso du lehen saria, Ane Vicentek bigarrena eta Markel Saez de Jauregik hirugarrena.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57

Arrantza txapelketa Osintxun, 1981 urtean

Duela urte batzuk arrantza txapelketa egiten zen Pazkoetan. Oilagorra elkarrekin antolatzen zuen eta jeneralean San Juanen edo Osintxun jokatzeko zuten. Gaztetxo eta gazte ugari izaten zen lehian eta amuarrainak harrapatzeko orduan trebezia handia zuten ere baziren. Txapelketaren ostean, arrantzale onenak sari nagusia eramaten zuten etxera. Eskumako argazkia 1981eko Pazkoetan aterata dago. Urte hartan Osintxun jokatu zen arrantza txapelketa eta gazte mailan aritu ziren arrantzaleak ikus ditzakezue, Osintxuko erreken ondoan ateratako argazkian. Orduan, 13-16 urte bitartean izango zituzten eta hor ditugu batzuk, harro-harro, eskuratutako trofeoa esku artean dutela. Honako hauek dira argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Goian: Iñigo Arando, Cusi, German Zenitagoia, ezezaguna, Iñigo Azkarate, Xabier Garitano eta Jesus Mari Etxeberria.

Makurtuta: Jesus Rueda, Xabier Alberdi, Joseba Otaño, Jesus Mari Garitano eta Jose Ramon Aizpuru.

Argazkia: Mariasun Gardoki



 **Manufacturas LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulua
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.

 **umelaga**
JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21


 **MEMESA**
INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

 **BILTOKI**
ASPIZA S.L.

Elektrikako tresnak	Barrenkalea, 6	Tel.: 943 76 25 96
Opariak	Barrenkalea, 12	Tel.: 943 76 04 72
Dekorazioa	San Martin plaza	Tel.: 943 76 43 51
Sukaldeak eta bainuak	San Pedro plaza	Tel.: 943 76 34 00

1955. urtean sortua 46 urte herriaren zerbitzura

 **Maxim's**

☎ 943 76 20 61



3.000.000 ibilgailu baino
gehiago aseguratuta
lasai-lasai errepidean



Problemarikgabe

Egin kontuak! 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa zune



MAPFRE

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

MH
MAKINA
ERREMITAREN
INSTITUTUA
INSTITUTO
DE MAQUINA
HERRAMIENTA



San Roke Auzoa, 1
ELGOIBAR
Ta. 943744132
F.943744153
ingenieria@fmh.es
www.fmh.es



cesi aquitaine
poitou-charentes



2001/2002 IKASTURTEA

Makina Erremintaren Institutuak aukera ezin hobea eskaintzen ditu:

TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA

- ✦ **Enpresarekin lanean** garatutako lanbide proiektua
- ✦ **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik
- ✦ **Emaitza erakargarriak:** tituludun **%100ek lanean** dihardute eta horietatik %25ek zuzendaritzako ardurak daramatzate

BILERA INFORMATIBOA

- EKAINAREN 13an, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera-baldintzak azaltzeko: 18.30ean Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioak bisitatuko ditugu eta 19.00tan bilera informatiboa hasiko da.

MATRIKULA EPEA ZABALIK

- IRAILAREN 4ra arte matrikula epea zabalik.



UNITED COLORS
OF BENETTON.